

ZERU GORRIAK

Maitane Mendikute, 17 urte

Mendaro

Txuri, beltz, gorria. Horrelakoxea da nire begiek estrainenekoz begiztazen duten paisaia. Hori uste dut bederen. Deus gehiagorik ezin esan dezaket, iritsi erri naizen mundu arrotzaz. Gauza gutxi.

* * *

Badakit? Iragan duk beste gau bat, ia begirik bildu barik. Goizaldeko ordu txikietan burkoari heldu, eta txoriak hegaldatzen hasten direnerako gogaituta izante naik. Oraintxu arte, ez zitzaidaan horrelakorik gertatzen. Jai eguentan, eguerdi alde-ra kentzen nitian makarrak. Aurreko gaueko atxurak buruzko minez jipoitzen ninduelarik, hurrengo astera arte nirekin egongo ote ez zen penatan. Horrelakoa zuan nire bizitza. Tristeia badirudi ere, ez diat gomutatzen horrelakoa izan ez zen domeka bazkalordurik. Ez nitian begi bistan nitian objektuak baino erreparatzen, gertuago dauden sentimen horiei kasu zipitzik egiteke. Inoiz sortu izan zitzaizkidan barne zirrarak uxatu egin ohi nitian, kulunkan zarraitean zenbait zalantzak niri laket ez zitzaidan bidea hartuko zuten ikaraz. Neu ninduan koldar bakarra. Betidanik harroputz samarra izaki, ostendu egiten nian izu hori, oilo busti bat izan ez nendin.

* * *

Heldu den udaberriaren lehen kriseiluek loratu dituzte larrosak zelaietan. Eskura jarri diote maite-mindu usteko orori, bere kuttunari oparitzeko lore sorta liraina. Neu ere hor nabil, erramua osatu, ez osatu... zalantzan. Niregatik izango balitz, diren eta ez diren landa guztietako lili lore guztiak bildurko nituzke. Denak hiretzat, noski! Baina... badakit! Aise irekitzen diat nik ahoa.

* * *

Igaro dira hilabete batzuk behi marrusa baino aditzen ez den toki honetan. Nere izaera asko gartu dela esatera ere ausar naiteke. Egia esan, hausnarketa da, denboraren astuntasuna ttipiagotzen laguntzen didan bakarra. Ez da inor, albora etorri, eta duen asti apurra nirekin pasatuko duenik. Inor ez, bere penak, anpuluena urmaeetik kontatuko dizkidanik. Arras idorrek dira denak. Badirudi, neuk baizik ez duela gogoetarik egiten. Badirudi, neu naizela denetan arraroena. Neu izanen naiz, ardi beltza.

Han! Badator etxeko morroskoa, guri bazka ematera. Eman edo... bota! Jaurti! Horrelaxe banatzen digute guri pentsua. Guk, beste irtenbiderik ez, eta jan eginen dugu, gizendu beldurrik gabe. Geroxeago, osterera ere idoroko dugu bertze norbait, guri azpiak egitera etorriko dena. Orduantxe agurtuko dugu argi kriseiluen sorburua. Egunak bere begiak hertsiko ditu. Bakoitzak bere habiara alde egingo du. Bere ohe goxora. Guk, aldiz, ez dugu inora hanka egin beharrik izango.

Hantxe geratuko gara. Lurrean, eta lau hornei so. Urteetan zuritu gabeko hornei. Hantxe. Artisau baten erraminta zaharkituak baikin, herdoilduriko kate apain batek iduna estutuko digularik. Hantxe iraunen dugu, txinten bat aterata ere, bertatik jalgiteko zirrikiturik kausitzeke. Gauak bere azken hasperena egin eta gero, aharrausi egingo du, gure etxaldeko oilarraren goizeroko kantaldiarekin sinkronizaturik. Ordu luzeetako lozorroaren iratzargailu izanen dira.

* * *

Ez diat astirik. Denbora zaluegi igarotzen duk, lanera joan, etxeko beharrak egin eta hori aski ez balitz hirekin pentsatzeko. Pentsatu. Bai. Ez nauk bertze deus egiteko lain. Oraindik orain, hi haiz ene gogoeta guztien sorburua. Hik hartzen duk tokirik handiena ene gogamenean. Zer arraio duk bada hik? Dakidana duk, supituki zoratu egin nauala. Baina hi ez haiz oraindik hortaz jabetu. Ala bai? Ez zaik ezer antzematzen.

Hor hago, hortxe. Zerura bidean noak, bihotz iduriko lainoetan barna. Amodioaren lehen txinpartak izanen dituk, eguzkiak minberatzen digun azalaren aztarrena. Hotzikara hedatuko duk gorputz guztian. Zirrara arraroa. Kilikagarria. Atsegi-na. Eta hire atzean pausatzeko tentazioa emango zidak tinkotu egingo den horrek, eta jarri egingen nauk. Zirrara hanpatu egingen duk. Maitasunaren eguratsak bere geruzak hautsiko ditik. Eta gogor segituko diat, hire masailez zera hori ferekatzen.

Azkenik umildu eginen duk hau, eta hodeien azpitik, sasien gainer itzuliko nauk Begien lausotasunak aienatu egingo dituk, eta paisaia deberdin bati so geratuko natzaiok. Lilurek iraun duten bitartean, bertatik hankarik higitu ez dudan paisaiari. Bainugelako horma laprastuei.

* * *

Triste nago. Triste! Ene aldamenetik eraman dute, jaio nintzenean bere errapeetatik esnea zurrupatu ohi nion ama. Txarrena da, ezin dudala deus egin, nire ama kuttuna nigandik urrun ez dezaten. Egia esan, baliteke nire ama bera ez izatea ere. Nork daki? Ez nuen ezer ikusten erditu ninduenean. Berdin dio! Arras maitea nuen nik ama. Ni bezalako batek maitasuna zer den jakitea txit zaila dela irudituko zaio orori. Baina sentimen horren jabe izateko eskubidea dugu legez, hura zen, nire bihotza beratzen zuen hunkigarri bakarra.

Ama denontzat izan ohi da ama. Nik gainera, aitarik ez dut egundo ezagutu. Jakin badakit, Alkauzegiko Peruren zezenetariko baten semea naizela. Inguruotako zezenik papar handiena bide zengainera. Haatik, San Ferminetara eraman zutela aditu nion etxeko nagusiari semearekin mintzo zen batean. Nolabaiteko poztasuna sortarazten dit gisa horretako aita ukan nuela jakiteak. Baina... bestetik... ez al dut nik neuk ere neure azken hatsa horrelako plazaren batean emango? Ez nadin laineztu. Ni ez naiz txahal ñimiño bat baizik.

* * *

Zenbat denbora gabiltzak elkarrekin, jada? Pasa dituk hilabete batzuk. Kontent nauk. Oso kontent. Ez nitek sekula pentsatuko, amets hau noizbait gauzatuko zenik. Baina bai! Hala ere negargura zeukeat. Gogo handia, benetan. Apika, zoriontsuegi izanen nauk hire alboan. Larregi haiz niretzat. Ur tanta bat nauk, hire itsaso eskergaren aldean.

Bazirudi ipar haize indartsu batek bultzatu nauela higana. Baina ez dik putz handirik egin. Marruskadura ttipi bat aski izan duk, hire enborraren aldamenean pausatzeko. Sustriaiak hedatu ditat neuk ere bertan. Laister, korapilatu eginen dituk bionak, hari biloak nahasten diren erreztasun berberaz. Inor ez duk gai izanen horiek askatzeko. Denbora izango duk epaile bakarra. Atzazalak moztu eginen zizkioagu, loturak askatzera etorriko den atzamar orori. Nik bai, bederen.

Nigatik balitz, higanako maitasunaren zelaiak beti loratuta egongo lituzkek. Nigatik balitz, munduko haize guztiek batera putz eginda ere, ez like tek amodioaren adarra higatuko, ezta inausiko ere. Hire itzalpean beti izanen duk beste zuhaitz bat. Eguzkiak aise joko ez duen arren, sobera izanen dik, lur azpitik hire erroek bideratzen dioten ongarrria.

Belardi bat. Bi zuhaitz.

* * *

Txundituta geratu naiz. Pixka bat izututa. Bart, besteetan ez bezala, gure korta elerik gabe uzten

duen maindire mututzailea zulatu egin da, non-bait. Gaueroko estatikotasunaren ezinegonak bere barrenak hustu. Lastoa zeregin berri baterako erabilgarri suertatu zaio ilargi amandrearen itzalpean bat egin duen bikoteari. Pospolu batek bestea biztu du, bat-batean eztanda egin duen lehergailuaren gisan. Amodioaren txinpartak lau haizetara barreiatu, pairatzen dituen orori bekaizkeria goxoa sorraraziz.

Hala ere, nire ikusmenak inoiz xurgatu gabeko zerbait sumatu dut oraingo honetan. Estraineko aldia izan da, etxeko morroskoa horretan ikusten dudala. Baina... nik uste nuen gizakiak ere gure berdintsuak izango zirela. Aitzitik, ezetz begitandu zait!

* * *

Bart erdietsi diat. Bart heldu nauk zirraren gailurrera. Bertatk jauzi egin diat, eta ortze urdinean hegaldatzeari ekin zioat, hiri eskutik helduta. Gero lurreratu egin gaituk, eta mendiaren zilborrean pausatu. Udaberriaren lurrina darion larrean.

Bi zuhaitz.

Badakit, ezta? Burua ez diat betiko lepotik izan bart. Bazuan denboraldi bat, txoko hartako lastoa inora barreiatzeke. Ez bederen, zeregin honetan. Azken zezentxoak bazirudik estrainekoz lekukotu duela jolas bipilaren garra. Besteak ohitu samartuta zeudean jada, baina haientzat ere zerbait berria izan duk. Orain gutxira arteko ohaide guztiei, tontorraren erdian lagatzen ninduten berberei ...

aizan! Hots egin ohi nieran. Hiri aldiz... aizak! Esaten diat. Eta hik ere bai niri, noski! Eta ez nauk lotsatzen.

Zoriontsu izanen gara, geuk sortutako burbuilaren barruko belardiaren erdian.

* * *

Iruñara ekarri naute, antza. Arras artega nago. Arnas estuka iristea eragin didan saltakaldiaren ostean, erabat nekatuta. Ez da, ez, pasarte txit ona izan. Urduri nago oso. Oraingo hau ez baita askoz hobe izanen.

Keinu egiten didate, ireki berri duten atea zeharka dezadan. Gorria da, eta beste ezer baino garbiago ikus dezaket. Baina ez zait laket. Ez dut inongo gutziarik sentitzen atearen beste aldeko eremua zapaltzeko. Baina ez dut beste erremediorik, ezen ipurterre hauek akuiluaz ziztatzen ari baitzaizkit. Banoa!

Ez dut ia deus ikusten. So egiten didaten begi pare andanak baino ez. Maindire gisako ohial gorrixka batzuk kenduta, dena ketuta dakusat. Haatik erakartzen nau izarak. Eta hara zuzentzen naizen bakoitzean txalo zaparrada batek itsutu ohi nau, eta oraindik eta urduriago sentiarazi. Bizkarrean zatzadak ere ez dira falta izaten noiz edo noiz. Nire aita zenari gertatu zitzaiona neuri gertatuko ez ote zaidan ikaraz nago. Oraindik gaztea naiz...

Ez dut artez jokatu. Desbideratu egin dira nire azken urratsak. Ez dut nahita egin. Adarrek giza-

kiaren okela urratu dute. Odol putzu batera erori da, zerraldo.

Isiltasunaren klandestinitateak estali du zerua. Berriro ere ate gorria zeharkatzera bortxatu naute.

– Egin hitzak hik honekikoak! Nik bazaukeat nahikoa lan!

Inozoa naizelakoan, disumulu gabe askatzen dituzte gisa honetako esaldiak. Badakit zer esan gura duten. Ez dut nahi. Oraindik ez! Ni joanez gero, ez dakit zer gertatuko zaion ikuiluko bikote-ari. Badirudi, ni mundura etortzeak elkartu dituela zero berdinen azpian. Eta ni joateak banatzen baditu? Azkarregi izango litzateke zoriona zapuzteko. Arin, norberak gura duena jakin eta lortu ostean, eskuarteko goxokia kentzeko. Arin, oraindik paparra guztiz handia ez duen zezentxo bat eta berak baino lekukotu ez duen istoria haizeak eramateko. Arin.

Negar eginen dut. Malko aberatsak isuriko ditut, ikuiluko belardian darraiten bi zuhaitzek, beren hostoen berdetasunaz amodiozko bekaizkeria goxoa edonori sor diezaioten, eternitatean.

Agur eginen diot amalurrari, eta oraindik jaietako ajea pasatu barik, kantuan ari zaidan mutikoari ere bai.

– Oraindik goiz duk etxera joateko. Zertarako ibili arineketan, bizi guztia aurrean izanda? Dira, dira, zezenak dira...